


Eraikuntzaren kostuek Euskal AEn % 0,8 egin zuten behera 2020ko abuztuan, aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin erkatuta, 2020ko abuztuan, 2019ko abuztuaren aldean, kostuek % 0,2 egin dute gora

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizeak % 0,8 egin du behera 2020ko abuztuan, aurreko hilarekin erkatuta, eta urte arteko tasak % 0,2 egin du gora, Eustatek emandako datuen arabera.

Aurreko hilaren aldean, lehengaien kostuek % 1,0 egin dute behera, eta eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0).



Aurtengo abuztuan, Eraikuntzaren azpisektoreak % 0,8ko jaitsiera izan du hilen artean bere lehengaien kostuetan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, % 1,9ekoa. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuek ez dute aldaketarik izan (% 0,0), eta Obra Zibilekoek % 2,0 egin dute behera.

Sektoreek kontsumitu eta igoera handienak izan dituzten lehengaien prezioen artean, 2020ko abuztuan, 2019ko abuztuaren aldean, nabarmentzekoak dira honako sektore hauek: *Material elektronikoa* (% 2,5eko igoera), *Material elektrikoa* (% 1,5eko igoera) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 1,1eko igoera). Honako sektore hauek, berriz, murrizketak izan dituzte prezioetan: *Petrolio finitza* (% 22,4), *Makinak* (% 3,8) eta *Metalurgia* (% 2,1).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Abuztua

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	105,6	-0,8	0,2
Eraikinak	105,8	-0,6	0,4
Obra zibila	104,8	-1,4	-1,1
LEHENGAI	104,9	-1,0	-0,4
Eraikinak	105,1	-0,8	0,0
Obra zibila	103,8	-1,9	-2,0
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62